

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Hiri antolamenduko plan orokorra formulatzen hasteko eta Eskuernagako hiri antolamenduko plan orokorraren herritarren partaidetzarako programa onartzeko erabakia

Eskuernagako Udalak, 2026ko apirilaren 16an egindako ohiko osoko bilkuran, Eskuernagako hiri antolamenduko plan orokorra berrikusteko prozedura hasteko eta herritarren partaidetzarako programa onartzeko erabakia hartu zuen.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, programa horren laburpena argitaratzen da. Programa osoa Udalaren iragarki-taula elektronikoan kontsultatu ahal izango da:

(<https://udalenegoitza.araba.eus/villabuena/web/tablonEdictos.do?opcion=0&entidad=VILLA-BUENA&idioma=1>).

Hori guztia argitara ematen da, herritar guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Eskuernagan, 2026ko irailaren 15ean

Alkatea

IÑAKI PÉREZ BERRUECO

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMAREN LABURPEN-TAULA

FASEA	DOKUMENTUEN IZAPIDETZEA	HERRITARREN PARTAIDETZA
1. FASEA Hirigintza-informazioa	Herritarren Partaidetzarako Programa onartzea HAPOaren eta haren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren idazketa hasia Hirigintza-informazioa eta diagnostikoa egitea	Programaren laburpena ALHAOn, udalaren webgunean eta gainerako hedabideetan argitaratzea Prozeduraren hasierari buruzko informazio-oharra eta lehen saiorako deialdia Herritar guztiei irekitako hasierako azalpen-saioa eta aurretiazko inkesta estandarizaturak Saio orokorrak eta partaidetzazko ibilaldi kolektiboak egiteko aukera. Egindako dokumentazioa udalaren webgunean txertatzea
2. FASEA Aurrerapena eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa prestatzea	HAPOaren Aurrerapena eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa prestatzea Helburuak eta alternatibak zehaztea	Herritar guztiei irekitako aurkezpen orokorra, planteatutako helburuak eta alternatibak azaltzeko Ordura arte egindako partaidetza-prozesuaren emaitzak Aurrerapenaren memorian txertatzea
3. FASEA Aurrerapena eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa jendaurrean jartzea	Plangintzaren aurrerapena eta hasierako dokumentu estrategikoa jendaurrean jartzea Irakurkizunak jasotzea, aztertzea eta ebaztea	Jendaurreko erakustaldiaren aldian saio orokor irekia egitea Irakurkizunak aurkezteko eredu udalaren webgunean eskuragarri jartzea Taldea idazlearen arreta pertsonalizatua infopgouvillabuena@gmail.com helbidearen bidez eta, hala badagokio, aurrez aurreko bilerak Irakurkizunei buruzko txostena prestatzea, Udalarekin aztertu eta ebazteko
4. FASEA HAPOaren proiektua hasierako onespenerako	HAPOaren proiektua idaztea, hasierako onespena emateko	Gai zehatzei buruzko oharra eta irakurkizunak jasotzen jarraitzea Aurreikusitako partaidetza-ekintzak egokitzea eta eguneratzea, ordura arte garatutako prozesua kontuan hartuta
5. FASEA Hasierako onespena eta alegazioak	HAPOari hasierako onespena ematea Jendaurreko informazioa eta alegazioen izapidetzea	Hasierako onspena jaso duen HAPOaren irismena azaltzeko saioa Alegazioak aurkezteko eredu udalaren webgunean eskuragarri jartzea Taldea idazlearen arreta pertsonalizatua infopgouvillabuena@gmail.com helbidearen bidez eta, hala badagokio, aurrez aurreko bilerak Alegazioen Behin Betiko Txostena igortzea